

AZPEITIRA

SUGUR-MOCH'ENeko Šanti Azpeitira juan biar zan.
Amak ala agindu zion.

Bere aita zanaren, amonaren aldeko, illoba baten lengusuaren alabak ezkondu biar zuen, ta estaietarako norbait bigaldu biarrain arkitzen ziran.

Eta ori orrela zala, Šanti bezin artakorik ezin arkitu.

Mutil gaztia, *beintzinko* baño dotoriagua, apaña, buruko erretena ere etzuten arren kalian bik zuzenago aterako.

Neskacha guziyak arri begira choraturik egoten ziran. Berak beintzat ala uste zuen eta ala esaten zuen.

Ori oso egi-egiya zan ezin esan genezake; berak irri-par gošoakin, begiratzen ziotela zion; beste askok par egiten ziotela zioten berriz.

Nolabait ere par ichura bazan beintzat; orain onerako ala charrerako..... asmazak aškora.

Zana zala gure Šanti pozez zoratzen zegon, Azpeitira juateko, amak agindu zion une beretik.

Izan ere, ura bezelako mutil ederrak Azpeitiyan arrera on bat nai ta nai ez izan biar zuen.

Beste tokietan bezela, Azpeitiyan ere neskacha gaztiak izango ziran noski, ta Šanti'ren apainketak eta batez ere bere illeko erretenak, buru guztiak naztutu biar zituzten.

Alakošia zan izan ere Šugur-moch'eneko Šanti.

Bere ustietan beintzat.

Gogotsu, pozik eta alai amaren asmoa entzun zuen, ta estaietara juateko unerik galdu gabe antolatzen asi zan.

Ez ori bakarrik. Alderdi guzietara zabaldu zuen bere Azpeitira jua biarra.

Arren ustietan erri guzian beste ezertaz itz egiten ez zan: ¡Santi Azpeitira omen dijua! ¡Azpeitira omen dijua Sugur-moch'eneko semia!

Orrela uste zuen Santi'k. ¿Orrela ote zan, ordia? Ez dakigu!

Nola nai ere Santi'ren jua biarra isilleko gauza ez zan. Zekitenak ba ziran. Eta abetako bat Susupe'eneko andre Ilari, andre berritzsu, baba jariyo bat.

Santi, jua biar zuen aurreko gabian, sisa baño arruago, bere apainketak antolatzen zegon, eta bat batian eskall-buruko atia jo zuten.

Andre Ilari zan.

Oitu bezela, baba zeriyoa berriketari ekin zion, eta Santi bazijuala ¡a! Azpeitira ¡o! estayetara ¡ui!, ta orrela lerdia zeriyoa ordu betian guchiyenaz berriketan aritu zan.

Onek Santi asperten zuenik ez zirudien, alai entzun zion beintzat; baña alakorik batian, andre Ilari'k atera zuen galtzarbetik pardel chiki bat esanaz:

—Ara Santi, pardel chiki au eraman biar diazu; gure echian izandutako motrikoar batzuen aurraren inuriaren ugaz lengusu batentzako da. Zera, Rufinacho deitzen diote. Irurogei urte baditu ta baita ere eskuiko begiyen gañian bekachu bat. Gañera aragiyari okelia deitzen diyo. Azpeitayan, ori esan ezkerdo edozeinek erakutziko dizu.

Etzion Santi'ri erantzuteko betik eman; jua zan arte, andre Ilari'ren chanda izan zan.

Gero ziran asarriak. Santi ez zegon inoren pardelak eramateko. Arrek jantzi biar zituen jazkerak, arren apainketak, arren buruko erreten kilimakagarriya, ¿ta atso zar baten bekachuaren ondotit ibilli biar?

Lana naikua izan zuen Santi'ren amak bere semia isildu azitzen, ta noizbait ere asarria askorik astu gabe gure gaztia oyeratu zan.

Noiz luak artu zuen ez dakigu, noiz esnatu azi zuten, bai. Berak nai baño lenago.

Amak atia ukabillakin jo ondorian deitu ziyon esanaz:

—Santi, jeiki zaitia, andre Pranchiska dago emen zure galdezka.

Andre Pranchisca, Pilarcho'ren ama da, ta Pilarcho berriz ikusi dan neskachik zoragarriyena.

Santi, andre Pranchiska'ren izena entzun zuenian, Pilarcho'tzaz goratu zan, eta jasteko betarik gabe, pozez beterik gelatik irten zan.

—Zera, Šanti, andre Pranchiškak esan zion, gazta guri bat dakart, zanpatu gabe Azpeitira eramango diazu. Zereko zerarentzat da. ¿Nola mutil begi oker bat izan genduen guk? Arren amagiyarrebarentzat.

Pilarcho'ren ama izan ez bazan, gazta burura botako zion.

Irakiten zegon mutil gizarajua. Andre Pranchiška atetik ateratzera-kuan karrašika aстера zijuan, bañan entzun zuen, ziotela: ez aterik ichi.

Andre PrudENCHI zan. Ta berarekin laztaida añako pardel bat zekarren.

¡¡Azpeitirako!!

Ondoren etorri ziranak ezin esan ala ziran. Irteteko ordurako Šugur-moch'eneko echiak periya zirudiyen.

Goiko, beko, aurreko, aldameneko, auso guztietako lagunak bildu ta, nolabait ere gauzak artu zituzten ta danen aurretik Šanti kalera irten zan.

Orduan ziran parrak; batetik eta bestetik algaraka, ¿Šanti denda jartzera al dijuu? zioten.

Mutilla amorratzen zijuan, ta bulebarrera irišteakoan, ¡zapla! andre Kiřeri, kanabelezko kayola aundi batekin.

¡¡Azpeitirako!!

Oraindik beste zazpi edo zortzi atso etorri zitzaizkan, ta guziyak Azpeitirako gauzakin.

Noizbait ere geltoki edo *estaziyora* irichi ziran, ta ango buruak ainbeste gauza ikusi zuenian Šanti'ri esan zion:

—Adiskidia, oyek guztiyak eramán biar badituzu, *tren espeziala* biarko dezu.

A. DARRA